

Musikagileen sorkuntza sustatu eta aintzatesteko asmoz, SGAE Fundazioak, Valentziako Erkidegoko Lurralde Kontseiluaren bitartez, lehiaketa honetarako deialdia egin du:

SGAE - CullerArts II. Konposizio Saria biolinarentzat

 **sgae fundazioa**

01 Munduko edozein herrialdetako musikagileek parte hartu ahal izango dute deialdian, SGAEko bazkideak baldin badira. Lanak edozein lengoaia edo joera estetikotakoak izan ahalko dira, eta Cullerarts 2022 biolinarentzako interpretazio-lehiaketan nahitaez aztertu eta interpretatu beharreko lanak izateko egokiak izan beharko dira. Egile bakarreko lanak bakarrik aurkeztu ahalko dira, eta musikagile bakoitzak obra bakarra aurkeztu ahal izango du, saria jaso ondoren bere edizioa baldintzatuko lukeen konpromisorik gabe. Obra jatorrizkoa izan behar denez, ez dira onartuko besteren obren zatiak erabiltzen dituzten obrak. Edozein forma edo modutan besteren obra-zatiak barne hartzen dituzten obrak lehiaketatik kanpo geratuko dira.

02 Obrak biolinarentzako bakarrik izan beharko dira.

03 Lehiaketara aurkeztutako obra ezin izango da aurrez estreinatutakoa, publikoaren eskura jarritakoa edo inola ere zabaldutakoa izan. Besteak beste, ezin izango dira aurkeztu obra hauek: ikus-entzunezko euskarrietan edo euskarri fonografikoetan erabiliak izan direnak; Internet bidez jendearen eskura jarri direnak; kontzertuetan jotakoak; ikus-entzunezko lanetan sinkronizatutakoak; Estatuko edo nazioarteko beste lehiaketa batean sarituak izan direnak.

04 Obrek gutxienez zazpi minutu iraun beharko dute, eta gehienez hamar minutu.

05 Lehiakideen anonimotasuna zaintze aldera, partiturak aurkezterakoan lanaren jatorrizko izenburua eta goiburua (lanaren izenburuaz bestelakoa izan beharko du) agertuko dira partituretan, eta ez dute egilearen izena adieraziko orrialde bakar batean ere.

06 Lehiaketara aurkeztutako obrak gutun-azal handi batean bidali behar dira; gutun-azalaren barruan obraren partitura sartu beharko da. Gutun-azal handian beste gutun-azal txikiago bat ere sartuko da, goiburu berarekin eta itxita, eta honako hauek edukiko ditu barnean:

- obra SGAEen erregistratuta dagoela adierazten duen fitxa edo SGAEen aurkeztutako obra erregistratzeko izapidean dagoela adierazten duen deklarazioa.
- NANaren edo pasaportearen fotokopia eta musikagilearen harremanetarako datuak.
- egileen *curriculum vitae* laburra, hogeit hamar orrokoa, gehienez.
- SGAE Fundazioaren aldeko berariazko baimena, sari honetarako beharrezkoak diren gestio guztiak egiterakoan datu pertsonalak erabiltzeko baimena izan dezan.

Gutun-azal txikia zorrotz kontrolatuko dute antolatzaileek, eta lehiaketaren berezko kudeaketa logistikoak egiteko baino ez dituzte erabiliko haren edukiak. Oinarri hauetan jasotako sari ofizialak eman ondoren bakarrik jakingo du Epaimahaiak irabazlea nor den, azken Aktaren idazketan haren izena jasotzeko.

07 Lanak aurkezteko azken eguna 2022ko urtarrilaren 31 izango da, posta ziurtatuz, edo mezularitza-zerbituz, edo zuzenean entregatuz Valentziako SGAE Fundazioan (Blanquerías, 6 - 46003 Valentzia) , edo SGAEk Espainian eta atzerrian dituen egoitza eta ordezkari nagusietan (www.sgae.es). Epe hori amaituta, zigilu-markan deialdiaren itxiera-data baino lehenagokoa edo bat datorrena duten bidalketak baino ez dira onartuko.

Baldintza guztiak betetzean antolatzaileek lehiatzeko onartu dituzten lanen goiburuen zerrenda www.fundacionsgae.org eta www.sgae.es web-orrietan argitaratuko da.

08 Onartutako partitura guztien artean, musikako aditu nabariet osatutako epaimahaiak lan irabazle bat aukeratuko du.

Lan hori:

- Cullerako Udalak (Valentzia) antolatutako "CULLERARTS", NAZIOARTEKO IV. BIOLIN LEHIAKETAko semifinalisten-tzako nahitaezko lana izango da. Lehiaketaren azken fasea 2022ko irailean izango da.
- Irabazlea, SGAEko bazkidea, "CULLERARTS" NAZIOARTEKO BIOLIN LEHIAKETA horretako hurrengo edizioko epaimahaikidea izango da.

09 Saria 2.000 eurokoa izango da. Zenbateko hori indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen zergen menpe egongo da.

10 Obra irabazlea egin duen musikagileak konpromisoa hartuko

du antolatzaileei partituraren kopia bat behar besteko aurrerapenaz emateko. Partituran obraren izenburu ofiziala agertu beharko da, SGAEen erregistratu zen bezala, eta baita musikagilearen izena eta abizena(k) ere, partitura guztietan erabilitako ohiko kanonen arabera, aurretiazko entseguetan eta NAZIOARTEKO "CULLERARTS" BIOLIN LEHIAKETAN erabiltzeko, non saritutako obra interpretatuko baita. Era berean, bere obrari buruzko idatzizko iruzkin labur bat bidali beharko du, bai eta curriculum eguneratua ere, fitxa biografiko-artistiko formatuan, LEHIAKETA horretako programa inprimatuan sartzeko.

11 Irabazle moduan hautatuak izan ez diren lanei buruzko agiri guztiak epaimahaiaren erabakia argitaratu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunetan baino ez dira gordeko. Epe horretan musikagileak ez badu dokumentazioa itzultzeko eskatzen, suntsitu egingo da.

12 Musikagile parte-hartzaileek SGAE Fundazioa erantzukizun orotatik salbuesten dute, baldin eta haietakoren batek plagiorik edota jabetza intelektualaren arloan indarrean dagoen lege-urraketarik egingo balu.

13 Deialdi honetan parte hartzean, musikagileek bete-betean onartu beharko dituzte sariaren oinarriak eta epaimahaiaren erabakiak. Erreklamaziorik edo gatazkarik egonez gero, parte-hartzaileek eta sariaren antolatzaileek Espainiako Madril hiriburuko auzitegien jurisdikzioari men egin beharko diote, eta gaztelaniazko testua hartuko da ofizialtzat.

14 Proiektua kudeatu bitartean alderdiek emandako informazio guztia konfidentziala da eta ezingo zaie hirugarrenei jakinarazi. Era berean, ezingo dira datuak ezarritakoak ez diren helburuetarako erabili, indarrean dagoen legeriak ezarritako salbuespenak salbuespen. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (Datu

pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak) xedatutakoa betez, lehiaketan parte hartuko duten musikagileek deialdi honetan ematen dituzten datu pertsonalak SGAE FUNDAZIOAren eta SGAEren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira, honako hauek burutzeko: epaimahaiari jakinarazteko; jakinarazpenak bidaltzeko; lehiaketa honetan parte-hartzeak dakarren kudeaketa administratiborako; hautatutako lehiakideei zor zaizkien zenbatekoak ordaintzeko banku eta aurrezki-kutxen bidez; emakidaren ebazpena internet bidez argitaratzeko; SGAE FUNDAZIOAren eta/edo SGAEren jarduera-memoriak egiteko; SGAE FUNDAZIOAk eta SGAEk zuzenean beren kabuz eta/edo kolaboratzaileen bidez burutzen dituzten jardueren publizitatea egiteko; edo Sariak garatzeko beharrezkoa izan daitekeen beste edozein kudeaketa burutzeko.

Norberaren datuak babesteko oinarriko eskubidearen titularrak datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak ditu, eta baita eramangarritasun-eskubidea eta erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea ere. Eskubideak gauzatzeko hona idatz dezakezu: SGAE Fundazioa, zerbitzu juridikoei, Barbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril edo helbide elektroniko honetara: informacion@fundacionsgae.org. Idazki horretan, eskubidearen titularra identifikatzeko beharrezkoak diren datuak, gauzatu nahi den eskubidea eta horretarako zergatia eta egin nahi duen eskaera zehatza adierazi beharko dira, NANaren fotokopiarekin batera.

MATERIALAK BIDALTZEKO

SGAE Fundazioa Valentzia

Blanquerías, 6
46003 Valentzia

INFORMAZIOA

Interesdunek era guztietako kontsultak egin edo oinarriei buruzko informazio gehiago lortu ahal izango dute helbide hauetan

cramos@fundacionsgae.org

www.fundacionsgae.org

www.sgae.es